ASTIBERRI EUSKARAZ



Itsaso gaziaren balada bat

Gidoia eta irudiak: **Hugo Pratt**
Itzulpena italieratik: **Irene Hurtado de Saratxo Mendieta**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2024
Zuri-beltza. Azal biguna, hegalekin
176 orrialde. 22 x 29 cm. 25 euro
Nobela grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-10332-13-3

Abenduaren 5ean salgai

Astiberrik *Itsaso gaziaren balada bat* argitaratu du, mundu osoan **ospetsua** den **abenturazalearen** lehen komikia, **Hugo Pratt** marrazkilari italiarrak sortua

CORTO MALTESE, ORAIN EUSKARAZ

Lehen Mundu Gerra lehertzear dela, Rasputin pirataren katamaranak naufrago bat jasotzen du, bestela ezinbestez hilko zena: baten batek hankak eta eskuak lotu dizkio baltsa bati, eta jitoan dabil Ozeano Bareko olatuetan. Gizon horrek mito bihurtzeko moduko izena du: Corto Maltese. Zer egin ote du hain zigor krudela jasotzeko? Zer ezkutatzen ote du begirada misteriotsuaren atzean? Rasputinen eskuetan ausaz eroritako familia oneko bi gaztek ere, Pandorak eta Cainek, galdera bera egiten diote beren buruari. Ez dute susmatzen elkarketa horrek betiko markatuko dituela beren bizitzak, baita milioika irakurlerenak ere.

Astiberrik euskaraz argitaratu du *Itsaso gaziaren balada bat,* Corto Maltese pertsonaia mundu osoan ezagutarazi zuen lehen komikia, Hugo Pratt marrazkilari entzutetsuarena. Serie hau gaurkotasun handikoa da beti, eta orain beste serie bat dago aurreprodukzio-fasean, Rainbow estudio italiarrarekin sinatuta; kasu honetan, irudi errealen bidez egina.

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

“Corto, gaur egun nahastezina dena, bere buruaren bila dabil *Baladaren* garaian: ez du bere biografia ezagutzen (bat-batean agertzen da itsasoaren erdian kateatuta *Navigatio Sancti Brandaniko* Judas bezala), zalantza egiten du bere psikologiaz, eta Prattek eta berak gutxi dakite oraindik bere aurpegiaz, binetaz bineta zirriborratzen ari baitira, istorioak aurrera egin ahala, funtsezko ezaugarri bakan batzuetatik galdera-zimurren egiturara. Beharbada ahaztuko ditugu bat-batekotasun hieroglifikoan Corto Maltese perfektu agertzen duten istorio franko, baina Baladan bizi da eta gogoangarri bihurtzen da inperfektu izateko egiten duen saioagatik. Hain zuzen horregatik *Balada* gertakizun baten gisa gelditzen da lehenbiziko irakurleen buruan, komikiaren bidez literatura egiteko modu berri baten eredu gisa”.

Umberto Eco

EGILEA



Hugo Pratt (Rimini, Italia, 1927 - Grandvaux, Suitza, 1995) munduko komikigilerik handienetakotzat hartzen da aho batez. Bere binetak, ilustrazioak eta akuarelak museorik garrantzitsuenetan daude ikusgai, besteak beste, Parisko Grand Palaisen eta Pinakotekan, Erromako Vittorianon, Veneziako Ca’ Pesaron eta Sienako Santa Maria della Scalan. Prattek berak “marraztutako literatura” gisa definitu zituen bere istorioak. Tim Burton, Frank Miller, Woody Allen, Umberto Eco, Paolo Conte eta beste egile eta artista batzuek aipatu izan dute. Italian, Argentinan, Ingalaterran, Frantzian eta Suitzan bizi izan zen. Bidaiari handia izanik, ia mundu osoan barrena ibili zen.

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com